

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Hutsa.
Hutsa.
MusikHerria.
Iraupena: 27'48".
8 euro.

Asetu ezineko goxotasuna

EDUKIRIK GABE abiatutako talde berri hau Maria Riverok eta Eriz Perezek osatzen dute, beste hainbat musika proiektu gogorragoetan lanean diharduten bi lagunek. Kafe bero baten parean jarri eta kanta hauek idatzi, kanta hauez gozatu eta beste hainbat aukera jartzen dizkigute mahai eta taza gainean. Gitarra akustikoa, erregistro aberatseko ahots ederra, armonika eta perkusio apur baten laguntzarekin. Eta kafearen lurrunaren artean esango nuke folka,

popa, bossa, soula, latinoa eta bluesa pasatzen, dantzan, ikusi ditudala; hori bai, beti ere era goxo eta era minimalistan, ia oharkabea. Ez da hauskorra, baina ia. Hitzetan ere poesia, umeak, egia borobilak eta malenkonioa eta optimismoaren arteko bideak elkartrukatzeko dira. Negar egin duzula? Barre? Agian kafea izan da, edo behingoz pentsatzeko gelditu zarela.

www.hutsa.net

Hutsa

«Kafea eta musika, diruditena baino gehiago dira beti»

Zer da zuentzat kafe bat hartzea? Barealdia? Epeltasuna? Hausnarke-ta? Sormena?

Kafe bat hartzeak guretzat zoramen honetan, irakurtzeko, lagunekin hitz egiteko, pentsatzeko, berotzeko... geldiuena irudikatzen du.

Kafea, musika bezala, bere horretan, purutasunean bizitzen al da askotan? Kafea eta musika, diruditena baino gehiago dira beti, pertsona bakoitzarentzat zentzu ezberdina dute; eta, jakina, bai kafea, baita musika ere, era ezberdinetan hartzen ditugu gure momentuen arabera.

Folkaren biluztasunaz eta pop-roc-kaz gain, musika latinoak eta bossak ere zuen bihotzak samurtzen ditu, ezta?

Musika dago gure bihotzean eta honi atek ireki dizkiogu ateratzeko baimen osoarekin, horregatik hainbeste estilo, hainbeste akorde gurtzatuta... Ea bide honetan gurea dena topatzen dugun, musikak berak, bihotzak erabakiko du.



“Hutsa”-k gelditzen zarete kantuekin barruak hustu ostean? Huts horrek bultzatzen zaituzte kantak egitera? Hutsa da funtsa?

Hutsa izan da proiektu honen funtsa, barneko hutsak, kanpoko hutsak, sentimendu hutsak, ohe hutsak... Hori guztia bideratu nahian musikak husten gaituela konturatu ginenetik hori izan da bidea beti. Kasu honetan, barnebarnekoak ateratzeko eta gure

barruan hutsak betetzeko erabili dugu.

Musikaren itsasoan MusikHerria da igeri egiten ikasteko modu aproposenetako bat?

Dagoenaren artean behintzat koherenteena da. Guretzat kultura zaindu beharreko ondarea da, hori da lehenetasuna, gero norbanakoarena, baina lehenik eta behin gizartearena; eta bide horretan ezin ditugu ulertu gauzak beste era batera, SGAE eta Sacem bezalako enpresei ez diegu etekinik emango, eta MusikHerrian, hori argi daukagu. Gure helburu eta filosofia-rekin bat egiten du arlo askotan.

Zer ematen dizue ildo akustikoak zuen beste taldeek ematen ez dizuetena?

Sentsazio ezberdinak, beste mundu batean esperimintatzeko aukera, aniztasun musikala eta batez ere, sentimendu ezberdinak bai konposatzerako orduan, baita eszenatikietan ere. Polita da tar-tekatzea, aberasgarria. ■

